



## BAZKIDEAK, ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

---

### ENPRESA MOTA:

Sortuko dugun enpresa mota kooperatiba da; 4 bazkide gara, gure erantzukizuna jarritako kapitalera mugatua izango da eta sozietate zerga ordaindu beharko dugu. Gure helburua ez delako mozkina ateratzea, baizik eta bezeroentzako eta langileentzako erosotasuna eta segurtasuna eskuratzea.

### GURE BEZERO NAGUSIAK:

Gure ideiarekin bezero nagusia finkaren jabea izango da (eraikineko bizilagunak), eta hark ordainduko du zerbitzua eta onartu egin beharko du. Bizilagunek gure ideiak beren etxeetan onartzen badituzte, gure produktuak saldu egingo dira eta ez gara gure produktuak etxean saltzera behartuta egongo.

### BAZKIDEAK

Mezulari enpresak gure bazkideen barruan egongo lirateke. Haien langileek erabiltzen baitute gure zerbitzua. Adibidez Correos bezalako enpresa bati. Horregatik, haiekin kontaktatu beharko genuke aliantza bat sortzeko eta haiek gure produktuaren bidez, eskatutakoa erosleei ahalbidetzeko.

Baita fadura bezalako eraikinak edo antzeko kirol-zentroak ere bazkideak izango lirateke. Gure produktua atek irekitzeko sistema bat denez, zelaiak edo pistak alokatzen dituzten pertsonak erabil dezakete, eta, hala, jakin lezakete zer ordutan ateratzen eta sartzen diren, eta segurtasun-sistema on bat izanez.



Garbitzaile edo eraikinaren mantentze-lanetako enpresak ere bazkide. Kristalgilea, lorezaina, garbitzailea... lan hauetako edozeinek gure produktua beharko luke. Beraiekin harremanetan jarri eta gure ideia erakutsiko genieke, gurekin bat egin dezaten; azken finean, produktu hori beraiek erabili ahal izango dute eta gauza asko erraztuko dizkie. Haiek ere gure zerbitzua erabiltzen dute eta aliantza bat sor genezake.

Business Angelak: Hauek bere inbertsio-erabakiak hartzen dituzte, eta bere dirua, eta batzuetan bere denbora, ematen die kanpoko pertsonak sustatutako enpresa kotizatu gabeiei. Beraz, gure produktua erakutsi ahal izatea eta berak finantzarioki mantendu ahal izatea krudela litzateke. Azken finean, diru iturri ona da hasierarako, produktua behar bezala antolatu ahal izateko.



## BAZKIDEAK, ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

---

### HORNITZAILEAK:

Gure hornitzaile nagusiak bi dira:

Eskanerrak ekoiztuko dituen enpresa: <https://www.teknometric.com/> izango da. Segurtasun-enpresa bat da, eta haiek ekoiztuko dituzte eskanerrak eta baita instalatu. Horrela, gure balizko erosleei beharrezko zerbitzu guztia eskaintzen diegu.



Beste hornitzailea gure zerbitzuaren gehigarria den postontzia sortuko dituen enpresa da: <https://www.solobuzones.es/Buzones-para-comunidad> izango litzateke. Haiek gure postontziak sortuko lituzkete, fabrikatuko lukete eta guk produktuagatik ordainduko genieke. Horrela, mezularitza-zerbitzua eskainiz, gure balizko erosleek izan dezaketen moduan.

